



“Hildakoekiko komunikazioak energia asko exijitzen du”

Mikel Lizarralde | Medium, igarle eta tarotista

Donostian duen kontsulta beterik izaten da, besteak beste familiako hildakoekin hitz egitera doazen bezeroekin.

FERMIN ETXEGOIEN
Argazkia: Dani Blanco

Telefonoa hartzean ezin duzu galdetu “nor da?”...

Gaur egun galdetu beharrik ere ez dago, pantailan azaltzen baitzaizu deika ari dena nor den. Hala ere, zergatik ez dut ba galdetuko? Nire lanetik kanpo nagoenean esfortzurik egin beharrik ez izatea espero dut!

Mago eskolara joan omen zinen Harry Potter bezala!

Kar kar kar... ba bai, edo antzeko zerbait. Kanadan egon nintzen eta gainera bi urteko ikastaroak urte eta erdian egin nituen. Lan horien artean, oso sarri gustukoak ez genituen gauza eta esperientzia ugari ere izan genituen. Baina Harry Potter-en gazteluaren askoz antzekoagoa da Ingalaterran ikastaroak egin izan ditudan lekua, Arthur Findlay College.

2005ean Kanadako medium onena izendatu zintuzten, bizitzaren osteko bizitza demostratzen egindako lanagatik.

Ottawan izan zen. 500 lagunuen aurrean zutik egonik, norekin erlazionatuta dagoen ez dakigun espiritu batekin kontaktatu eta oso datu zehatzak eman ondoren, publikoan dauden 500 lagun horietatik nori dagokion asmatu.

Esaten duzu hildakoak ez daudela hilda eta posible dela haiekin kontaktatzea zure bitartez?

Hau telefono bat bezalakoa da, guk dei egin behar dugu eta beraiek erantzun. Energia asko exijitzen duen komunikazioa da. Ez da erraza beraientzat, ezta niretzat ere. Desgaste handia du.

Aizu, hiltzea ez baldin bada desagertzea... kondematurik al gaude “betiko” izatera?

Kondenatuta al zaude izozki batekin, sexuarekin edo itsasoan igeri egitearen plazera sentitze-
ra? Ez da esperientzia txarra, zorionsua baizik. Gure esentzia betikoa eta eternoa da.

Ulertuko duzunez, hau irakurrita iruzurgile profesionaltzat hartuko zaitu batek baino gehiagok...

Nik ezin dut pertsonen buruan sartu eta beraien sinesmen sistema aldatu, hori nire laguntza bila etortzen denari ondo lagunduz lortzen da... Niretzat iruzurtia besteengandik aprobetxatzen saiatzen dena da, eta etekin bat pertsona horren kontura lortzen duena, eta hori ez da nire kasua.

Espero zenuen hauteskundeetan gertatu dena? (Hauteskundeen aurretik eginiko galdera!)

Espero nuen EAJk irabaztea, baina beste urteetan bezain indartsu ez egotea eta euskal alderdiek elkartu beharra izatea euskal gobernu bat antolatu ahal izateko. Baina bai, espero nuen Patxi ez izatea lehendakari sozialista berria, nahiz eta hori saldu nahi izan diguten. Espero nuen, baita ere, EAJ, EA eta Aralarren jaitziera nabarmena Araban.

Esaten duzu “espirituek” ezin digutela ezer txarrik egin, baina nork sinetsiko dizu Exortzista ikusita?

Egia da! Gu ondo bagaude eta gure aura ere bai –droga gogor baten edo adikzio baten menpe ez bagaude–, ezin digute kalte egin eta ez dute nahi gainera. Nork sinetsi dezake hainbeste maite zenuen ama gibelean kateatu zaizula? Bizitzan egiten ez zituen gauza txarrak, gero ere ez ditu egingo! Film askok kalte handia egin dute eta, zorionez, gero eta gehiagok errealitatea denaren antzekoa erakusten dute. ■